



IRABAZI-ITURRIAK

Gure aplikazioak dirua nola irabaziko duen oso argi daukagu! Aplikazioan, **ikasleek online klase partikularrak jasotzeko ordainduko dute**. Klase bakoitza amaitzean, ikasleak irakasleari ordainduko dio, eta aplikazioak komisio txiki bat hartuko du zerbitzua eskaintzeagatik. Horregatik, gure **diru-sarrera nagusiak ordainketa bakarretatik etorriko dira**, hau da, klase bakoitzeko ordainketatik.

Klaseen prezioa ez da beti berdina izango, **irakaslearen mailaren, esperientziaren eta ikasgaiaren arabera** aldatuko delako. Horrela, ikasle bakoitzak bere beharretara egokitzen den aukera aurkitu ahal izango du, eta irakasleek beren lana baloratzeko aukera izango dute.

Etorkizunean, **harpidetzak** gehitzeko aukera ere egongo da. Adibidez, hilero kuota txiki bat ordainduz, ikasleek deskontuak edo abantaila bereziak izan ditzakete. Horrela, aplikazioak diru-sarrera errepikakorrak ere izango ditu, ez bakarrik klase bakoitzeko ordainketak.

Hau guztia kontuan hartuz, gure aplikazioak dirua irabaziko du klase partikular bakoitzeko komisioaren bidez, eta geroago harpidetzen bidez ere bai. Horrela, plataforma mantendu, hobetu eta erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaini ahal izango zaie.